

BANAKETA eta KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroengana helarazteko jarraian aipatzen dudan moduan egingo dugu, baraz, ondorengoak izango dira gure banaketa kanalak:

- ✓ Online bidez erositako produktuak bezeroen etxeetara eramateko furgoneta propio bat edukiko dugu.
- ✓ Bestalde dendan bertan erosten duten bezeroekin zuzen zuzeneko harremana izango dugu.

Bestalde, komunikazio kanalak ondorengoak izango dira:

- ✓ Enpresak webgune bat izango du. Bertan enpresak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuen inguruko informazioa agertuko da. Produktu batekiko zalantzak edo kontsultak bidaltzeko aukera ere izango dute.
- ✓ Dendan erosten badute produktua gure langile adituek lagunduko egingo diete bezeroei haien eskaeraren arabera gehien hurbiltzen den produktua erosteko.
- ✓ Gure enpresaren inguruko informazioa publizitatearen bidez banatuko dugu, parabrising delakoaren bidez, edota herriko irrati eta egunkarietan nolabaiteko iragarkiak jarriz.